

# ANDUTZ MENDIA

---

Andutz mendiaren ekialdeko magalean artadi kantauriar zabala ikusten da, hari lotutako ohiko flora-komunitateekin batera. Hala ere, lekurik heze eta freskoenetan baso mistoak eta pagadi batzuek ordezkatzan dute artadia.

Mendebalderantz sastrakadia da nagusi. Horrek gaur egun desagertuta dagoen baso bat egon zela eta pixkanaka landarediak bere lur eremua berreskuratzen ari dela frogatzen du. Sastrakadiaren ondoan albitz-belardiak daude, eta harkaitzaren erlaitzetan, berriz, oso landare espezializatuak errotzen dira; besteak beste, iratze batzuk.

Kareharrizko gailurretan elordiak, txilarrak eta mendiko belarkiak hazten dira.

Faunari dagokionez, ugaztunak nabarmendu behar dira; hala nola, erbia, basurdea, basakatua, katajineta, Europako ipurtatsa, azkonarra edo lepazuria. Horiekin batera, besteak beste, sai zuriak eta Europako arrano sugezaleak Anduzko tontorren gainean hegan egiten dute, eta neguan mendi-tuntun batzuk ikusi dituzte. Gainera, kareharrizko mendigune hori egokia da narrastien bizitzarako; esaterako, sugandila iberiarra eta Schreiber muskerrarentzat.



Andutz mendikateko tontorrak



Karraskila



Gorostia